




PASSION FOR KNOWLEDGE

Nazioarteko Zientzia Jaialdia
Festival Internacional de Ciencia
International Science Festival

EGITARAUUA



2026/09/28 → 10/03
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
BILBAO



dipc Donostia
International
Physics Center

PASSION FOR KNOWLEDGE

Passion for Knowledge (P4K) herritar guztientzat zabalik dagoen nazioarteko zientzia-jaialdia da, Donostia International Physics Center (DIPC) ikerketa-zentroak antolatua. Ikuspegi berritzaile eta jarduera-programa zabal baten bidez, jaialdiak zientzia etorkizuneko belaunaldien ongizateari laguntzeko funtsezko kultura-jarduera gisa eta aurrerapen zientifiko, teknologiko eta sozialaren eragile gisa sustatzen du.

Passion for Knowledge jaialdiaren seigarren edizioa 2026ko irailaren 28tik urriaren 3ra bitartean ospatuko da. Donostiako Victoria Eugenia Antzokia izango da berriro ere egoitza nagusia, eta Bilbok ere hartuko ditu programaturiko jardueretako batzuk.

Passion for Knowledge jaialdiak Nobel saridunak eta zientziaren, kulturaren eta pentsamendu garaikidearen arloko pertsona nabarmenak biltzen ditu, ezagutza gizartera hurbiltzeko eta diziplina ezberdinen arteko elkarrizketa sustatzeko helburuarekin. Jaialdiak espazio paregabea eskaintzen du ezagutza zientifikoak

eta humanistikoak gure kultura, gure balioak eta etorkizunari buruzko gure ikuspegia nola eratzten laguntzen duten hausnartzeko.

Egitarauak hitzaldi nagusiak eta publiko desberdinei zuzendutako jarduerak biltzen ditu: bigarren hezkuntzako ikasleekin topaketak, Naukas saioak, haurrentzako tailerrak, ikuskizunak eta eduki-sortzaileek gidatutako dibulgazio-jarduerak, besteak beste.

+ info



p4k.dipc.org




P4K!

HITZALDI NAGUSIAK



Jaialdiaren ezaugarri bereizgarria. Arratsaldero, Victoria Eugenia Antzokiak Nobel saridunak eta zientzian zein beste diziplina batzuetan nazioarteko erreferente diren pertsonak biltzen ditu, gizarte osoarekin ezagutzarekiko pasioa partekatzeko.

+ info



HIZLARI NAGUSIAK



Eneko Agirre

Makinei gizakion hizkuntza ulertzen irakasten dien zientzialaria

Eneko Agirre Informatikako katedraduna eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) HiTZ Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroko zuzendaria da. Informatikari honek nazioarteko aitortza du hizkuntzaren prozesamendu naturalaren arloan egindako ekarpenengatik; adimen artifizialaren adar horri esker, ordenagailuak giza hizkuntza ulertzeko eta sortzeko gai dira. Hizkuntzaren prozesamendu naturalean eta adimen artifizialaren semantikan egindako lan aitzindariari esker, hiru Google Research Award sari eta artikulua onenaren hainbat sari jaso ditu. 2021eko SCIE-BBVA Fundazioa Informatika Sari Nazionala jaso zuen, eta Hizkuntzalaritza Konputazionalaren Elkarteko (ACL) kidea da.



Juan Ignacio Cirac

Ordenagailu kuantikoaren ideologoetako bat

Juan Ignacio Cirac Max Planck Institutuaren Optika Kuantikoko Institutuko zuzendarietako bat da, 2006an Asturiasko Printzea Saria eta 2013an Wolf Saria jaso zituen. Fisika kuantikoa konputazioan aplikatzeko ideiarik garrantzitsuenetako batzuk proposatu ditu, ordenagailu kuantikoaren ideologo nagusietako bat bilakatuz. Bere ikerketak informazio kuantikoaren teorian eta konputazio kuantikoko sistemen garapenean oinarritzen dira; teknologia horrek informazioa prozesatzeko eta arazo konplexuei aurre egiteko modua eraldatu lezake.



Sandra Myrna Díaz

Klima-krisiaren aurrean, 'bizitzaren sarearen' defendatzailea

Sandra Myrna Díaz Argentinako Kordobako Unibertsitate Nazionaleko Ekologiako katedraduna da, eta biodibertsitatearen arloko munduko aditu nagusietako bat. 2007ko Bakearen Nobel Saria jaso zuen Klima Aldaketari Buruzko Gobernu arteko Adituen Taldeko kide gisa, eta 2019an Asturiasko Printzesa Saria jaso zuen klima-alaketaren aurkako borrokan eta biodibertsitatearen babesean egindako lanagatik. Bere ikerketek landare-aniztasunak ekosistemak nola eusten dituen eta giza ongizateari nola laguntzen dion ulertzeko modua eraldatu dute, eta horrek biodibertsitatearen eta jasangarritasunaren arloko nazioarteko politikak taxutzen lagundu du.



Pedro Miguel Etxenike

Zientzia herrialde baten bihotzean jarri zuen fisikaria

Pedro Miguel Etxenike, DIPCKo presidentea, materia kondentsatuan espezializatutako fisikaria da, gainazalen fisikaren eta elektroien dinamikaren arloetan, eta ibilbide nabarmena du ikerketan eta esparru akademikoan. Euskal ikerketa-ekosistemaren eraikuntzan funtsezko eginkizuna izan du, eta Jakiunde, Materia Fisikaren Zentroa, CIC nanoGUNE eta DIPCK bezalako erakundeen sorrera eta garapena bultzatu ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko lehen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburua izan zen, eta ikerketa, zientzia eta teknologia sustatu zituen, baita euskararen normalizazioa ere. EHUKo katedradun emeritua da, eta jasotako aintzatespen ugarien artean daude Asturiasko Printzea Saria, Max Planck Fisikako Saria eta Euskadi Zientzia Saria.



Juan José Gómez Cadenas

Unibertsoa ulertzeko neutrinoen bila dabilen zientzialaria

Juan José Gómez Cadenas DIPCKo Ikerbasque Research Professor da, eta NEXT esperimentuaren zuzendaria, Canfranceko Lurpeko Laborategian. Bere ikerketa partikulen eta astropartikulen fisikan, neutrinoen fisikan eta instrumentazio nuklearrean oinarritzen da. NEXT esperimentuaren helburu nagusietako bat neutrino bikoitzaren bilaketa da; prozesu hori behatuz gero, neutrinoa bere antipartikula dela frogatuko litzateke. 2016an Breakthrough Prize in Fundamental Physics saria jaso zuen, eta European Research Council (ERC) erakundearen bi ikerketa-laguntza garrantzitsu lortu ditu. Bere jardura zientifikoa idazle-lanarekin uztartzen du. Bost eleberri, zientzia-dibulgazioko bi saiakera eta poema-liburu bat argitaratu ditu.



Siri Hustvedt

Literatura eta neurozientziaren arteko elkarrizketaren ahotsa

Siri Hustvedt nazioartean ospe handiko eleberrigilea, saiakeragilea eta intelektuala da, eta 2019an Literaturako Asturiasko Printzesa Saria jaso zuen. 'The Blazing World' eta 'Memories of the Future' lanen egilea da, baita berriki argitaratutako 'Ghost Stories' (2026) lanarena ere. Idazle estatubatuarra literatura, neurozientzia, filosofia eta psikologia uztartzeagatik da ezaguna, eta, horien bidez, oroimenaren, kontzientziaren eta giza identitatearen izaera aztertzen du. Hogeita hamar hizkuntza baino gehiagotara itzuli dituzte haren lanak, eta Weill Cornell Medikuntza Fakultateko psikiatriako irakaslea ere bada; bertan, zientzien eta humanitateen arteko elkarrizketa sustatzen du.



Wolfgang Ketterle

Materiaren egoera berrien sortzailea tenperatura ultrahotzetan

Wolfgang Ketterle Fisikako John D. MacArthur katedraduna da Massachusettsko Teknologia Institutuan (MIT), eta 2001eko Fisikako Nobel Sariaren irabazlea. Fisikari alemaniar honek nazioarteko ospea du gas batean Bose-Einstein kondentsazioa lehen aldiz behatzeagatik; aurrerapen horrek materiaren egoera berri bat agerian utzi zuen eta fisika kuantikoaren mugak zabaltzen zituen. Haren ikerketak atomo ultrahotzen aparteko propietateak aztertzen ditu, eta horri esker, zientzialariek teknologia kuantikoetan aplikazioak izan ditzaketen fenomeno kuantikoak hobeto ulertzen dituzte.



Jean-Marie Lehn

Kimika supramolekularraren aita

Jean-Marie Lehn Estrasburgoko Unibertsitateko irakasle emeritua da, eta 1987ko Kimikako Nobel Sariaren irabazlea. Kimikari frantses hau kimika supramolekularraren aitzindarietako bat da, hau da, egitura konplexuagoak osatzeko molekulek elkar ezagutu, elkartu eta antolatzen duten modua aztertzen duen arloa; prozesu hori funtsezkoa da prozesu biologikoetan. Haren ikerketek bide berriak ireki dituzte beren kabuz antolatzeko eta funtzio espezifikoak betetzeko gai diren sistema molekularrak diseinatzeko, nanozientziaren eta material adimendunen alorreko aurrerapen berrien oinarriak ezarriz.



Anne L'Huillier

Elektroien dantza filmatu zuen lehena

Anne L'Huillier Suediako Lund Unibertsitateko Fisikako katedraduna da, eta 2023ko Fisikako Nobel Sariaren irabazlea. Fisikari franko-suediar hau attosegundoen zientziaren aitzindarietako bat da, hau da, elektroiek atomoen barruan duten higidura lehen aldiz behatzea ahalbidetu duen arloa. Argi-pultsu ultralaburrak sortzeari buruzko haren ikerketa berritzaileak mundu mikroskopikora leiho berri bat ireki du, eta fisikan, kimikan eta materialen zientzian aurrerapen garrantzitsuak egiteko oinarriak ezarri ditu.



Eva Nogales

Zelula-zatiketaren eta gene-adierazpenaren argazkilaria

Eva Nogales Kalifornia Berkeley Unibertsitateko, Biologia Molekular eta Zelularreko katedraduna da, Howard Hughes Medical Institute zentroko ikertzailea. 2023ko Shaw Saria jaso zuen Bizitza Zientzien eta Medikuntzaren arloan. Biofisikari honek nazioarteko ospea du zelula-zatiketa eta gene-adierazpena kontrolatzen dituzten makina molekularren hiru dimentsioko egiturak argitzeagatik. Mikroskopia krioelektronikoko punta-puntako teknikak erabiliz, haren ikerketek eraldatu egin dute zelulen funtzionamenduaren ulermena, eta ondorio garrantzitsuak izan dituzte minbiziaren, genetikan eta sendagaien garapenaren ikerketa alorretan.



Marcus du Sautoy

Artearen eta sormenaren matematikaria

Marcus du Sautoy Oxfordeko Unibertsitateko Simonyi Zientziaren Dibulgazioko eta Matematikako katedraduna da. Matematikari britainiar hau munduko zientzia-dibulgatzaile ospetsuenetakoa da. Matematikek gure mundua nola egituratzen duten aztertzen du, artetik eta musikatik hasi eta adimen artifizialera eta gizakiaren sormenera iritsi arte. Idazle arrakastatsua, aurkezlea eta antzerkigilea da, eta milioika pertsona inspiratu ditu bere liburuen, telebista saioen eta antzerkiaren bidez. 2009an, Royal Societyk Faraday Saria eman zion zientziaren dibulgazioan izandako bikaintasunagatik, eta 2010ean, Britainiar Inperioaren Ordenako Ofizial izendatu zuten (OBE), zientziari egindako ekarpenengatik.



Brian Schmidt

Unibertsoaren azelerazioa detektatu zuen supernoben ehiztaria

Brian Schmidt Australiako Unibertsitate Nazionaleko Astronomiako katedraduna da, eta 2011ko Fisikako Nobel Sariaren irabazlea. Astrofisikari estatubatuar-australiar honek Z Handiko Supernoben Bilaketa Taldea zuzendu zuen. Taldearen behaketek agerian utzi zuten Unibertsoaren hedapena azkartzen ari dela, kosmosaren ulermena eraldatu zuen aurkikuntza iraultzailea, energia ilunaren existentzia iradoki zuena. Haren ikerketek fenomeno astrofisiko ugari hartzen dituzte barne, besteak beste, supernobak, gamma izpien eztandak, grabitazio-uhinak eta exoplanetak. Horri esker, Unibertsoari buruzko oinarritzko galdera garrantzitsuenetako batzuei erantzuten laguntzen du.



Ana Zubiaga

Minbiziaren aurka babesten gaituzten mekanismoen deskodetzailea


Ana Zubiaga Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Genetikako katedraduna da, minbizia eragiten duten mekanismo molekularretan aditua. Haren ikerketek zelula osasuntsuek beren hazkundera nola kontrolatzen duten eta DNAREN osotasuna nola babesten duten aztertzen dute, baita prozesu horietan gertatzen diren akatsek tumoreen garapena nola eragin dezaketen ere. Haren aurkikuntzei esker, minbizi-zelulen ahultasun berriak identifikatu dira, tratamendu eraginkorrak garatzeko baliatu ahal izan daitezkeenak. Era berean, haren azken lanek tumoreek sistema immunitarioari nola ihes egiten dioten argitu dute, eta horrek aukera berriak ireki ditu terapia bideratuak minbiziaren aurkako immunoterapiarekin konbinatzeko.

+ info



AHOTS BERRIAK

Aurten, jaialdiak atal berri bat estreinatuko du. Bertan, zientziaren eta dibulgazioaren gaur egungo erreferenteek gure garaiko erronka eta aurrerapen handiei buruzko ikuspegi berriak eskainiko dituzte. Elkarriketak, solasaldiak eta aurkezpenak, datorren mundua ulertzeko.



+ info

María Martín-Torres

Gure espeziearen jatorriaren detektibea

María Martín-Torres Espainiako Giza Eboluzioaren Ikerketarako Zentro Nazionalako (CENIEH) zuzendaria da, eta munduko paleoantropologo nabarmenenetakoa bat. Ikertzaile honek hondar fosilak —bereziki hortzak— erabiltzen ditu gure espeziearen historia ebolutiboa berreraikitze, antzinako gizakiak nola migratu, nola egokitu eta munduko hainbat eskualdetan nola hedatu ziren argituz. Nazioartean ospe handia duten aztarnategi arkeologikoetan, hala nola Atapuerca eta Dmanisi, egindako lanak funtsezko ezagutzak eman ditu lehen europarren jatorriari eta lehen giza populazioen aniztasun nabarmenari buruz. Horri esker, giza eboluzioaren inguruan dugun ulermena berrikusten lagundu du.





Román Orús

Algoritmo kuantikoen eta adimen artifizialaren aitzindaria

Román Orús Ikerbasque ikertzaile-irakaslea da Donostia International Physics Center-en (DIPC), eta Multiverse Computing enpresaren sortzaileetako bat eta zuzendari zientifikoa. Fisikari teoriko hau aditu nabarmena da konputazio kuantikoan eta adimen artifizial kuantikoan. Haren ikerketek funtsezko zeregina izan dute fisika kuantikoaren aurrerapenak industriadako soluzio berritzaile bihurtzen. 2024ko Fisika, Berrikuntza eta Teknologia Saria jaso du, eta Adimen Artifizialari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Aholku Batzorde Zientifiko Independenteko kidea da.



Eduardo Sáenz de Cabezón

Publikoa 'deribatuz' inspiratzen duen matematikaria

Eduardo Sáenz de Cabezón Errioxako Unibertsitateko Matematikako irakasle titularra da, eta Espainiako zientzia-dibulgazioaren erreferenteetako bat. Matematikari honek nazioartean aitortutako ikerketa egiten du aljebra konputazionalen, eta, aldi berean, matematikak guztiontzat ulergarri eta eskuragarri egiteko grina du. 1,5 milioi harpidedun baino gehiago dituen 'Derivando' YouTube kanalaren, 'Órbita Laika' telebista-programaren, bere liburuen eta jendaurreko hitzaldien bidez, eguneroko bizitzan matematikaren edertasuna eta garrantzia ikusarazi die milioika pertsonari.



P4K!

NAUKAS PASSION



Umorea, eszeptizismoa eta zientziarekiko pasioa dira Naukas ekimenari bizia ematen dioten pertsonen ezaugarriak. **Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Kultura Zientifikoko Katedraren**ekin elkarlanean antolatutako saioa da.


+ info



BERTSO PASSION

Gaur egungo bertsolari erreferenteetako batzuek bertsolaritzaren tradizioa ekarriko dute jaialdira. Aukera paregabea Euskal Herriko kultur adierazpide berezietako batez gozatzeko; bertan, poesia une berean sortu eta partekatzen da.

+ info



PASSION TXIKI

Zientzia familian. Jolasa, esperimentazioa eta irudimena ardatz hartuta txikien jakin-mina pizteko pentsatutako programa da. Zientzia abentura handi bat izan daitekeela deskubritzeko tailerrak, ipuin-kontalariak eta jarduerak.

+ info



IKASLEEKIN TOPAKETAK



Jarduera nagusietako bat **Zientziarekin solasean!** topaketak dira. Bertan, Bigarren Hezkuntzako ikasleek nazioarteko Nobel saridunekin eta zientziaren alorreko figura nabarmenekin elkartzeko aukera dute. Aukera bikaina bokazio zientifiko berriak pizteko.

+ info



IRAILAK 29
VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN



Anne L'Huillier



Ginés Morata



Brian Schmidt

URRIAK 1
BIZKAIA ARETOA EHU, BILBAO



Albert Fert



Eva Nogales



Marcus du Sautoy



DOKTORETZA- IKASLEEN PRESTAKUNTZA

Euskampus Fundazioaarekin elkarlanean, Passion for Knowledge jaialdiak zeharkako gaitasunak garatzeko eta esperientziak partekatzeko prestakuntza-jardunaldi bat antolatuko du. 'Scientific Discovery in the Era of AI' tailerrak diziplina zientifiko guztietako doktoretza-ikasleei jaialdira gonbidatutako hainbat aditurekin elkarriketan aritzeko aukera eskainiko die.


+ info



EMAKUMEAK ZIENTZIAN

Emakumeak Zientzianekin elkarlanean, Passion for Knowledge jaialdiak ikerketaren esparruko osasun mentalari eta ongizateari buruz hausnartzeko jardunaldi bat hartuko du. Bereziki, emakumeek beren ibilbide zientifikoan zehar jasaten dituzten desberdintasun eta zailtasunei erreparatuko zaie.

Saioak gaiari buruzko sarrera-hitzaldi bat eta mahai-inguru bat uztartuko ditu. Mahai-inguruan hainbat belaunalditako emakume zientzialariek beren esperientziak partekatuko dituzte, eta sistema zientifiko osasuntsuago, ekitatiboago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko moduei buruz eztabaidatuko dute.



+ info



SPARK SATELLITE WORKSHOP

SPARK (Sessions in Physics: Advancing Research and Knowledge) lankidetza zientifikoa eta ezagutzaren trukea sustatzeko nazioarteko ikertzaileak biltzen dituen DIPCren ekimen berria da. Passion for Knowledge jaialdiaren baitan, komunitate zientifiko osoari irekita dagoen workshop bat egingo da, propietate exotikoak dituzten material kuantikoetan zentratua.




+ info



ON ZIENTZIA

+ info



Jaialdiak dirauen bitartean, On Zientzia lehiaketako bideo onenak hainbat kultur eta aisialdi-zentrotan proiektatuko dira. On Zientzia ikus-entzunezko eduki dokumentalak sortzeko proiektuak saritzen dituen lehiaketa da, **Elhuyarrek** eta DIPCk antolatua, EITBren Teknopolis programaren laguntzarekin.





	ASTELEHENA, IRAILAK 28		ASTEARTEA, IRAILAK 29		ASTEAZKENA, IRAILAK 30		OSTEGUNA, URRIAK 1		OSTIRALA, URRIAK 2		LARUNBATA, URRIAK 3		IGANDEA, URRIAK 4			
Goiza			IKASLEEKIN TOPAKETAK 9:00 - 12:30 Ginés Morata, Garapenaren genetika Anne L'Huillier, Attosegundoko fisika Brian Schmidt, Astrofisika Victoria Eugenia Antzokia		DOKTORETZA-IKASLEEN PRESTAKUNTZA 9:30 - 13:30 Tailerra Jean-Marie Lehn, Kimika supramolekularra Sandra Myrna Diaz, Biodibertsitatea eta klima-aldaketa Miramar Jauregia		IKASLEEKIN TOPAKETAK 9:00 - 12:30 Albert Fert, Espintronika Marcus du Sautoy, Matematika Eva Nogales, Biologia molekularra eta zelularra Bizkaia Aretoa EHU, Bilbao		EMAKUMEAK ZIENTZIAN 10:00 - 13:00 Rosa Molina, Osasun mentala Mahai-ingurua Rosa Molina Maria Vallet Regi Susana Carregal Carlos Santamaria Zentroa EHU		PASSION TXIKI 10:00 - 13:00 Nik ikertzen dut, Zirkuitu zientifikoa (Mad Science) Ilargira joateko prest? Zientzia-ikuskizuna (Ana Galarraaga) Victoria Eugenia Antzokia, Kluba Aretoa		PASSION TXIKI 11:00 - 13:00 Tailerra Haurrak Familiak Tabakalera, Medialab			
	Arratsaldea	HITZALDI NAGUSIAK 18:00 - 20:30 Inaugurazioa Ongietorri instituzionala Anne L'Huillier, Attosegundoko fisika Brian Schmidt, Astrofisika Victoria Eugenia Antzokia		HITZALDI NAGUSIAK 18:00 - 19:30 Ana Zubiaga, Genetika eta minbizia Sandra Myrna Diaz, Biodibertsitatea eta klima-aldaketa Victoria Eugenia Antzokia		HITZALDI NAGUSIAK 18:00 - 19:30 Marcus du Sautoy, Matematika Elkarriketa Jean-Marie Lehn & Pedro Miguel Etxenike Victoria Eugenia Antzokia		HITZALDI NAGUSIAK 18:00 - 19:30 Siri Hustvedt, Literatura Juan José Gómez Cadenas, Partikulen fisika Victoria Eugenia Antzokia		PASSION TXIKI 17:30 - 19:30 Nik ikertzen dut, Zirkuitu zientifikoa (Mad Science) Victoria Eugenia Antzokia, Kluba Aretoa		AHOTS BERRIAK 18:00 - 18:45 Eduardo Sáenz de Cabezón, Matematika Victoria Eugenia Antzokia				
			AHOTS BERRIAK 19:30 - 20:30 Solasaldia Maria Martínón & Román Orús Victoria Eugenia Antzokia		BERTSO PASSION 19:30 - 20:30 Ametz Arzallus Andoni Egaña Maialen Lujanbio Aitor Mendiluze Maite Berriozabal, gai-jartzailea Victoria Eugenia Antzokia		NAUKAS PASSION 19:30 - 20:30 Antonio Martínez Ron Juan Carlos Gil Oskar González Gemma del Caño Laura Morán José Miguel Viñas Victoria Eugenia Antzokia		HITZALDI NAGUSIAK 18:00 - 19:30 Juan Ignacio Cirac, Fisika kuantikoa Eneko Agirre, Adimen artifiziala Victoria Eugenia Antzokia		HITZALDI NAGUSIAK 18:45 - 20:30 Wolfgang Ketterle, Fisika kuantikoa Eva Nogales, Biologia molekularra eta zelularra Amaiera Victoria Eugenia Antzokia					
					HITZALDI NAGUSIA 18:00 - 19:00 Wolfgang Ketterle, Fisika kuantikoa Guggenheim Museoa, Bilbao				NAUKAS PASSION 19:30 - 20:30 Marga Sánchez Romero Joaquín Sevilla Isabel Moreno Helena González Eva Caballero Ignacio López Goñi Victoria Eugenia Antzokia							
Egun osoa					SPARK SATELLITE WORKSHOP						Miramar Jauregia					

EKITALDI
MOTA



Doako
sarrera



Aurretiko
izen-ematea

PUBLIKOA



Publiko
orokorra



Ikastetxeak



Komunitate
zientifikoa



Haurrak
Familiak

EGOITZAK



Victoria Eugenia Antzokia,
Donostia / San Sebastián



Miramar Jauregia,
Donostia / San Sebastián



Bizkaia Aretoa EHU,
Bilbao



Guggenheim Museoa,
Bilbao



Carlos Santamaria Zentroa EHU,
Donostia / San Sebastián



Tabakalera,
Donostia / San Sebastián

BATZORDEA

Presidentetza

Pedro Miguel Etxenike
P4K 2026ko Presidentea
DIPCko Presidentea
EHUko Katedradun Emeritua

Ricardo Díez Muiño
P4K 2026ko Presidentea
DIPCko Zuzendaria
Ikerbasque Research Professor

Koordinazio orokorra

Nora González
DIPCko Dibulgazio eta Komunikazio Zuzendaria

Batzorde Exekutiboa

Itxaso Azcune
DIPCko Dibulgazioa eta Komunikazioa

Iker Badiola
EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren zuzendaria

Igor Campillo
Euskampus Fundazioko zuzendaria

Aitzol García Etxarri
DIPCko Ikerbasque Research Associate Professor

Arantzazu García Lekue
DIPCko Proiektu Estrategikoen zuzendaria
Ikerbasque Research Professor

Geza Giedke
DIPCko Ikerbasque Research Professor

Jon Mattin Matxain
EHUko Kimikako fakultatearen dekanoa

Mónica Moreno
POLYMATEko Proiektu arduraduna

Idoia Mugica
CFMko (CSIC-EHU) Komunikazio arduraduna

Beñat Olabe
POLYMATEko Komunikazio arduraduna

Itziar Otegui
CIC nanoGUNEko Komunikazio arduraduna

Javier Peláez
Naukas-en kofundatzailea

Valentina Rodríguez
DIPCko Dibulgazioa eta Komunikazioa

Eduardo Sáenz de Cabezón
Universidad de La Rioja-ko irakaslea

Manex Urruzula
Elhuyarreko Komunikazio Unitateko arduraduna

Marta Vega de Seoane
DIPCko Dibulgazioa eta Komunikazioa

BABESLEAK

DIPC zentroa finantzatzen duten erakundeak:



P4K jaialdiaren laguntzaileak:



DIPCk bereziki eskertzen du Eusko Jaurlaritzak Passion for Knowledge jaialdiari urteetan zehar emandako babesa.



Zientzia kultura da.
Guztiona da.
Gozatu.





Passion
For
Knowledge



Donostia
International
Physics Center

p4k.dipc.org